


EKINTZAILE  
BERRITZAILEAK



INBERTSIO  
FOROA



INBERTITZAILE  
POTENTZIALAK



## Business Angels Crecer+ klub berria, EAEko ekintzaile ekosistema sustatzeko

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak Business Angels Crecer+ aurkeztu zuen otsailaren 3an. Ekimen hori sortu da gure lurraldean proiektu berritzaileetan eta hazteko ahalmen handia dutenetan inbertitzeko interesa izan dezaketen inbertitzaile sare bat sortzeko. Klubak hainbat zerbitzu eskainiko ditu: prestakuntza eskainiko die inbertitzaileei; lege arloko aholkularitza emango die; kapital arriskuko enpresa eta beste inbertitzaile batzuekiko harremana garatuko du,

proiektuetako baterako inbertsiorako aukerak emateko; eta hazteko aukera duten arlo eta proiektuei buruzko ezaguera aditua eskainiko du. Horrez gain, klubak business angelseko estatuko eta nazioarteko beste sare batzuetara sartzeko modua emango die, European Business Angels Network (EBAN) edo European Venture Capital Association erakundeekin dituen hitzarmenei esker. Gainera, aldian-aldian inbertsio foroak antolatuko ditu, hazteko ahalmen handiko proiektu berritzaileen inbertitzaileen eta ekintzaileen arteko harremana errazteko. Argibide gehiago: [www.bacrecermas.es](http://www.bacrecermas.es)